

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO = JASANGARRITASUNA

Horixe da Getxorentzat nahi duguna: jasangarritasuna ingurumenean, jasangarritasuna gizartean eta jasangarritasuna ekonomian. Getxon bizi-proiektu bat garatu nahi dugu.

FB orria: EAJ PNV Getxo / EAJ PNV
Instagram: @eajpnvgetxo



GETXOKO POLIZIA-PLAN ESTRATEGIKOA



Getxotarren kezkarik handienetakoa da segurtasunik eza; izan ere, Ertzaintzaren datuen arabera, azken bi hilabeteetan indarkeriazko lapurreta gehien izan dituen Uribe Kostako udalerrria da Getxo. Segurtasunik eza ekiditeko, Polizia Plan Estrategiko bat ezartzea proposatzen du PP taldeak: bi urtetan ehun agente kontratatzea udaltzaingoaren plantilla indartzeko, oinezko

agente gehiago ipintzea, txakurren K9 unitate bat sortzea gatazka-guneetarako, auzoetan azpikomisariak jartzea, agenteei taser pistolak eta kamera pertsonalak ematea eta bide publikoan segurtasun-kamerak jartzea. Antza denez, EAJ taldea ez dago getxotarren segurtasunarekin kezkatuta, eta azken Osoko Bilkuran proposamenari uko egin zion. #esnatuGetxo

ehildu

ZAHAR EGOITZETAKO LANGILEAK, BORROKAN!

Azken hogeita hamar urtetan ikusi dugu zelan joan den pribatizatzen zahar egoitzen esparrua. 90. hamarkadan Hego Euskal Herriko egoitzen %9 inguru zegoen enpresa pribatuaren esku, eta gaur egun kontrara, egoitzen %9 inguru baino ez da guztiz publikoa. Izan ere, "publikotasunaren" atzean egoitzetako hainbat zerbitzu azpikontratatu egiten dira: sukaldaria, garbiketaria... Negozioa bilatu zuten ordurarte administrazioak kudeatzen zuen esparruan, eta ondo aurkitu ere. Pribatizazioa ez da soilik etiketa bat, berarekin dakar langileen lan baldintzak okertzea, erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea jaistea... Eta horregatik borrokan ikusi ditugu urte luzez zahar egoitzetako lan-

gileak; sektore feminizatua izanik, hainbat eta hainbat emakume. Grebak, mobilizazioak... Lan berdina egiteagatik soldata berdina eskatuz, egoitzak publikoak izan behar direla eskatuz.

Getxoko egoera ez da bestelakoa: 75.629 biztanleko gure udalerrian, zeinetan 65 urtetik gorako kopurua %26,80-koa den, Udaltzaingoia publiko bakarra dugu, eta ez guztiz publiko, lehen adierazi bezala. Jakina da gero eta biztanleria zaharragoa daukagula, eta joera da urte gutxi barru 65 urtetik gorako pertsonen ehunekoa handitzea. Prest egon behar dugu datorkigun erronkari aurre egiteko, pertsonak erdigunean jarriz eta zaintza sistema publiko oinarri izanik.

PSE-EE
PSOE

15 URTETAKO LANGABEZIA-ZIFRARIK BAXUENA

Langabeziari buruzko azken datuek agerian uzten dute martxoan **lan-merkatua hazi zela**, eta **20,4 milioi kotizatzaileko errekorra** lortu zen estatuan. Urtarrila eta martxo bitartean, ia 300.000 pertsona gehiago egon zen enpleguan, **erregistroak daudenetik lehen hiruhilekoan izan den hazkunderik handiena**. Pozten gara aldi hori **azken 15 urteetako emakumeen langabezia-daturik txikienekin eta langabeen kopuru txikienekin** itxi delako.

Datu onak Euskadin eta Getxon Euskadiko datuak ere positiboak dira: milioi bat kotizatzaile inguru ditugu, **langabeziak 2005etik izan duen mu-**

rrizketarik handiena gertatu da, eta guztizko zifra **110.000 langabetuen azpitik egon da lehen aldiz 2008ko abendutik**. Getxon, hain zuzen, otsailko datuen arabera, **Bizkaiko langabezia-tasarik txikiena** dugu, eta Euskadiko bigarren txikiena 40.000 biztanletik gorako udalerrietan, biztanleen % 8,12 baino ez baitago langabezia. Datu horiek oso positiboak dira, eta berretsi egiten dute lan-merkatuaren indarra, inflazioaren zein interes-tasen gorakada eta gerraren ondoriozko ziurgabetasun ekonomiko gorabehera, baina, batez ere, **bidea markatzen dute, zeinean aurrera egiten jarraitu behar dugun.**



BIDEZKO HITZARMEN BAT UDAL GARBIKETA-ZERBITZURAKO

Berriz ere esan behar dugu: udalzerbitzuen pleguak parte-hartzearen bidez eta langileen eskubideak errespetatuz negoziatu behar dira. Azken osoko bilkuran, plantillaren presioagatik, alkateak hausnartu eta plegu berrien inguruko eztabaida atzeratu behar izan zuen. Negoziatzeko espazio bat sortzea eskatzen dugu, Gobernuak aurkeztutako Pleguaren akatsak zuzentzeko, nego-

ziazio kolektiboa errespetatzen duen espazioa, eta Elkarrekin taldeak egiten dituen proposamenak kontuan hartzen dituen, hala nola enpresak kontuak hileroko emateko betebeharrak izatea, sexu-jazarpena prebenitzeko plan bat ezartzea, hondakin organikoetarako eta ondoriozko konpostaren erabileretarako hobarien bidez komunitateko konpostaje-guneak sustatzea (From frakzioa).